

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko otsailaren 28ko erabakia, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenak Estíbaliz Canto Llorente zinegotziari eskuordetzeari buruzkoa**

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikulua eskumenak aitortzen dizkio Tokiko Gobernu Batzarrari, eta horietako batzuk Tokiko Gobernu Batzarreko kideen esku utz daitezke.

Alkate lehendakariak, udalaren egitura organikoa aintzat hartuz, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

Tokiko Gobernu Batzarreko kide Estíbaliz Canto Llorente zinegotziari eskuordetzea Hezkuntza eta Kultura Saileko zeregin hauek, alkatearen esku geratuko diren zuzendaritza gorena eta ikuskapena gorabehera:

a) Lizentziak ematea.

b) 80.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obren kontratazioa eta 100.000,00 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, kontratu pribatuak eta administrazio-kontratu bereziak.

Zerbitzu-emakiden eta obra-emakiden arloko kontratazioa Tokiko Gobernu Batzarrarentzat erreserbatuta geratzen da.

c) Aurreko b) letran azaldutako gastuen betebeharrak baimentzea, erabiltzea eta aitortzea.

d) Tokiko Gobernu Batzarrak obren, zerbitzuen, hornikuntzen, eta bestelako administrazio-kontratuen gaineko kontratazioak esleitu ondoren, horiek gauzatzearen ondorio diren obra-egiaztagiriak (azken egiaztagiria barne), fakturak eta beste onestea, kontratu bakoitzeko edukiaren osotasuna edo zati bat izanda ere.

e) Zigorrezko ahalmenaz baliatzea.

Azken xedapena. Dataren egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 2an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**